

PARTE HARTZEKO ARAUDIA

Pumps and Valves 2023

DATA GARRANTZITSUAK

- 1. art. Antolakuntza**
- 2. art. Ekitaldiaren lekua, datak eta ordutegia**
- 3. art. Onartutako erakusketariak eta produktuak**
- 4. art. Kontratazioa eta parte hartzeko moduak**
- 5. art. Erakusketariaren eskubideak**
- 6. art. Derrigorrezko aseguruak**
- 7. art. Baldintza ekonomikoak eta ordainketari dagozkionak**
- 8. art. Muntatzea, merkantziak sartzea eta desmuntatzea**
- 9. art. Harremanetarako datuak**

=====

DATA GARRANTZITSUAK

Lekua eskatzeko
Lehentasunezko epearen
amaiera

2023/01/20

Espazioen eta aseguru
fakturaren epemuga

2023/03/15

Derrigorrezko zerbitzuen eta
proiektuen ikuskaritzaren
eskaerak jasotzeko epemuga

2023/05/02

Bisitari profesionalen doako
izen-ematea ixtea

2023/05/10

Web bidez

2023/06/08

Erakusketarien esteka erabiliz

Hautazko zerbitzuen
eskariak jasotzeko epemuga

2023/05/17

Muntaketa eta
merkantziak sartzea

2023/06/01 - 2023/06/04

08:00etatik 20:00etara

Azken eguna - 2023/06/05

08:00etatik 15:00etara

2023/06/06 - 2023/06/08



Erakusketarientzako ordutegia:

08:30etik 19:00etara

Bisitariantzako ordutegia:

09:30etik 18:00etara

Desmuntatzea eta
merkantziak ateratzea

2023/06/09 - 2023/06/11

08:00etatik 20:00etara

PARTE HARTZEKO ARAUDIA

1. ANTOLAKUNTZA

PUMPS & VALVES 2023 egitasmoaren antolaketa eta zuzendaritza **Bilbao Exhibition Centre (BEC) eta Easy Fairsi** dagokie. Komunikazio guztiak hona bidaliko dira:

BILBAO EXHIBITION CENTRE, S.A. (BEC)
PUMPS & VALVES
Azkue kalea, 1
E-48902 Ansio-Barakaldo

Tel. +34 94 404 00 00
pumpsandvalves@bec.eu
www.pumpsandvalves.com

2. EKITALDIAREN LEKUA, DATAK ETA ORDUTEGIA

PUMPS & VALVES 2023 Bilbao Exhibition Centren - BEC egingo da, Ansio-Barakaldon (Bizkaia), **2023ko ekainaren 6tik 8ra** eta asteartetik ostegunera **09:30etik 18:00etara egongo da zabalik bisitarientzat** eta **08:30etik 19:00etara erakusketarientzat**. Bisiten ordutegian zehar, standetan jendea egongo da harrera egiteko, eta materiala bistan egongo da.

3. ONARTUTAKO ERAKUSKETARIAK ETA PRODUKTUAK

- Parte hartzeko eskarian adierazitako sektoreetako jarduerak garatzen dituzten pertsona fisiko edo juridiko guztiak, publikoek zein pribatuek, egin dezakete ekitaldian parte hartzeko eskaera.
- Erakusketarako onartuak izan diren produktuen fabrikatzaileak eta produktu horien agente eta ordezkariak izan daitezke erakusketariak.
- Erakusketarako material osagarri gisa maketak, argazkiak eta filmak soilik onartuko dira, eta betiere onartutako produktuenak badira.
- Stand informatzaileak soilik, hau da, erakusteko materialik ez dutenak ez dira onartuko, irabazi asmorik gabeko elkarteen eta erakundeen kasuan izan ezik.
- Aurreko baldintzak betetzen ez dituen materiala kendu egingo du erakusketariak bere kontura eta bere arriskupean.
- Erakusketariak ez diren enpresen publizitatea ez dago onartuta, ezta standetatik kanpo publizitaterako materiala banatzea ere.

4. KONTRATAZIOA ETA PARTE HARTZEKO MODUAK

KONTRATAZIOA:

- Kontratatzeke Egitasmoaren Zuzendaritzari bidali behar zaio parte hartzeko eskaria behar bezala beteta eta aurretik 80 euro +BEZa ordaindu behar dira metro karratu bakoitzeko. Gero, 7. artikulua ezarritako parte hartzeko zenbateko osotik kenduko da kopuru hori.
- Kontratatzeke gutxieneko espazioa 12 m²koa da ALL IN standean, eta 16 m²koa ALL IN ADVANCED standean, kontratazioaren modalitatearen arabera. Metro karratuen frakzioen metro karratu oso gisa fakturatuko dira.
- Sustapen-paketeak: parte hartzeko modalitate guztietan derrigorrezkoa izango da sustapenerako paketeak kontratatzea. Gutxieneko BASIC paketea izango da, parte hartzeko eskarian ageri den moduan.
- Parte hartzeko eskaerak jasotzeko lehentasunezko epea 2023ko urtarrilaren 20an amaituko da. Eskariaren eta libre dagoen espazioaren arabera hartuko dira aintzat eskaerak.
- Antolakuntzak eskubidea du esleitutako azalera edo kokalekua aldatzeko, baldintzek hala eskatuko balute, eta horrek ez dakar kalte-ordaina jasotzeko eskubiderik.
- Taldekako parte-hartzea: Antolakuntzak ezarritako baldintzen arabera onartuko dira. 2 enpresako taldeek gutxienez 16 m² kontratatu behar dituzte. Beste taldeen kasuan, antolatzaileekin kontsultatu.
- Erakusketaren eremuan kontratatutako standaren kokalekua antolatzaileek zehaztuko dute, eta baliteke antolatzaileek aukerak eskaintzea eta enpresa parte-hartzailearen beharretara egokitzen ahalegintzea, baina ez da inolaz ere bermatuko nahi den kokalekua lortuko denik.
- Zerbitzuak kontratatzeke online dendaren bitartez egin daiteke, "Erakusketarien eremu pribatua" atalean, emandako erabiltzailea eta pasahitza erabilia.

PARTE HARTZEKO FORMATUAK:

Stand ALL IN

Gutxieneko standa: 12 m².

Prezioei % 10eko BEZa aplikatuko zaie.

- **236 € / m² 2023/01/20ra arte (lehentasunezko epea)**
 - **263 € / m² 2023/01/21tik aurrera**
- + sustapen paketa



AZALERA	IREKITA DAUDEN ALDEAK*
12-16 m ²	1
17-24 m ²	2
25 m ² tik aurrera	2-3

*Standen irekitako aldeak orientagarriak dira eta aldaketak izan ditzakete eskuragarri dagoen erakusketarako espazioaren arabera. Irudia bi aldeak zabalik dituen ALL IN standaren adibidea da.

Hauek barne hartzen ditu:

Espazioa:

- Azaleraren alokairua
- Erantzukizun zibileko aseguruua.
- Kalteen aseguruua (12.000€ gehienezko balioa).

Standak eta zerbitzuak:

- Stand modularra, melanina grisezko panelekin eta aluminiozko profilekin egindakoa.
- Moketa grisa (jaspe).
- Izen soziala banderolan.
- 50 W/m²ko argiteria.
- Diferentziala eta magneto termiko automatikoa.
- 220 Vko entxufe monofasikoa TTrekin.
- Argiteriarentzako hartune elektrikoa.
- Industria-baimena.
- Kontsumo elektrikoa 2.000W arte.
- Eguneroko garbiketa.

Altzariak:

- Mahai biribil 1 eta 3 aulki.

Innovation Workshops:

- Produktuen, zerbitzuen edo irtenbideen aurkezpen teknikoa.

Sustapenerako elementuak:

- Ekitaldiaren webgunean berriak eta artikuluak argitaratu eta zabaltzea.
- Erakusketarien direktorioko profil osoa.
- Aukeratutako sustapen-paketearen arabera sustapenerako tresna gehiago.

Networking:

- Ustezko erosle eta bazkideekin interakzioa.


Elementu gehigarriak:

- Erakusketen eremuan zure bezeroentzako doako izen ematea.
- Erakusketarien baimenak.
- Muntatzeko eta desmuntatzeko baimenak.

Gutxieneko standa: 16 m².

Prezioei % 10eko BEZa aplikatuko zaie.

- **299 € /m² 2023/01/20ra arte (lehentasunezko epea)**
 - **326 € /m² 2023/01/21etik aurrera**
- + sustapen paketa



AZALERA	IREKITA DAUDEN ALDEAK*
16-24 m ²	1-2
25 m ² tik aurrera	2-3

*Standen irekitako aldeak orientagarriak dira eta aldaketak izan ditzakete eskuragarri dagoen erakusketarako espazioaren arabera. Irudia bi aldeak zabalik dituen ALL IN ADVANCED standaren adibidea da.

Hauek barne hartzen ditu:

ALL IN ADVANCED – 30 m²ra arte

Espazioa:

- Azaleraren alokairua
- Erantzukizun zibileko aseguruua.
- Kalteen aseguruua (12.000€ gehienezko balioa).

Standak eta zerbitzuak:

- Stand modularra, melanina grisarekin eta aluminiozko profilekin egindakoa.
- Moketa beltza.
- Friso perimetral beltza, sozietate-izenarekin.
- Hormako grafikoa: 3X2ko foamezko inprimakia.
- Diferentziala eta magneto termiko automatikoa.
- 220 Vko entxufe monofasikoa TTrekin.
- Argiteriarentzako hartune elektrikoa.
- Industria-baimena.
- Kontsumo elektrikoa 2.000W arte.
- Eguneroko garbiketa.

Altzariak

- Mahai biribil 1 eta 3 aulki.

Innovation Workshops

- Produktuen, zerbitzuen edo irtenbideen aurkezpen teknikoa.

Sustapenerako elementuak

- Ekitaldiaren webgunean berriak eta artikuluak argitaratu eta zabaltzea.
- Erakusketarien direktorioko profil osoa.
- Aukeratutako sustapen-paketearen arabera sustapenerako tresna gehiago.

Networking:

- Ustezko erosle eta bazkideekin interakzioa.

Elementu gehigarriak:

- Erakusketen eremuan zure bezeroentzako doako izen ematea.
- Erakusketarien baimenak.
- Muntatzeko eta desmuntatzeko baimenak.

ALL IN ADVANCED - 30 m²tik aurrera– ADVANCED COMPANY - onura gehigarriak:

Publizitatea:

- Webgunean "Advanced Company" logoa eta esteka txertatzea.
- Eraikineko erdiko atarian olana, veneziar formatuarekin.

Konferentziak:

- Konferentzietarako 2 baimen.

Aukeratutako standaren tamaina edozein izanik ere, grafikoa 16m²koaren berdina izango da

Stand irekiarentzat gomendatzen den azalera librea 4 kale edo irla da.

Prezioei % 10eko BEZa aplikatuko zaie.

- **231 € /m² 2023/01/20ra arte (lehentasunezko epea)**
 - **257 € /m² 2023/01/21etik aurrera**
- + Sustapen Paketea

Azalera librearen formatuak honako hau barne hartzen du:

- Azalaren alokairua (gutxienez 12 m²).
- Erakusketarien direktorioko profil osoa.
- Garbiketa eta aseguruak derrigorrezkoak egitasmoan zehar.
- Erakusketen eremuan zure bezeroentzako doako izen ematea.
- Innovation Workshops: Produktuen, zerbitzuen edo irtenbideen aurkezpena.
- Erakusketarien baimenak.
- Ekitaldiaren webgunean berriak eta artikuluak argitaratu eta zabaltzea.
- Muntatzeko eta desmuntatzeko baimenak.
- Networking: ustezko erosle eta bazkideekin interakzioa.

AZALERA LIBREA - PREMIUM COMPANY - 80 m²tik aurrera – onura gehigarriak:

Ekitaldirako era lehenagorako sustapen-elementuak:

- Enpresaren logotipoa eta esteka PREMIUM COMPANY gisa sartzea ekitaldiaren webgunean.
- Partaideei eta bisitariei bidaltzen dizkiegun komunikatuetan eta berrietan logoa txertatzea.
- Eraikineko erdiko atarian 2 olana nabarmen, veneziar formatuarekin.
- Pabiloirako sarreratik gertu binilo zirkular 1.
- Eraikineko fatxadan, enpresaren logotipoa daraman olana.
- Enpresaren logotipoa txertatzea ekitaldiaren karteletan eta publizitatean.

Konferentziak:

- Banakako hitzaldia (kasu praktikoa bezero baten eskutik) edo eztabaida-mahaian esku hartzea. Betiere aurretik Batzorde Zientifikoak onartuta.
- Konferentzietara sartzeko 4 baimen oso.
- Bezeroentzako konferentzietarako baimen gehigarriak, lehentasunezko prezioarekin. (Prezioa ekitaldiaren egunera arte mantenduko da).

5. ERAKUSKETARIAREN ESKUBIDEAK

Izen-emateak zerbitzu eta hornidura hauek barne hartzen ditu:

- Erakusketarien eremurako parte-hartzea aukeratutako formatuaren arabera.
- Sartzeko "erabiltzailea" eta "pasahitza2 "Erakusketarien online direktorioan" izena emateko eta "Online dendan" zerbitzu gehigarriak eskatzeko. Ekitaldiaren webguneko "Erakusketarien eremu pribatuan" daude horiek.
- Erakusketarien baimenak: "Erakusketarien eremu pribatuaren" bitartez 20m²ra arteko 4 baimen eskatzea eta 2 gehiago 20 m² edo zati bakoitzeko, 6 gehienez ere.
Standean egongo ez diren enpresako langileak bisitari gisa erregistra daitezke baimena lortzeko.
- Muntatzailearen baimena: Muntatzailearen baimena "Erakusketarien eremu pribatuaren" bitartez eskatzen da.
- Erakusketa hasi aurretik lehenengo garbiketa ALL IN eta ALL IN ADVANCED formatuentzat. Garbiketan ez da sartzen AZALERA LIBREA.
- Eguneroko garbiketa, ekitaldiak iraun artean.
- Zaborra, txirbila eta hondakinak kentzea.
- Derrigorrezko aseguruak: kalteen eta erantzukizun zibilerako aseguruak (ikusitako xehetasunak 6. artikuluan).
- Sustapenerako paketeak: jarraian ikusi.

OINARRIZKO PAKETEA

Sustapenerako tresna hauek ditu:

- **Erakusketarien direktorioa.**
 - Enpresaren profila: Enpresaren profil osoa eta zehatza da eta direktorioan logoa ere barne hartzen du. Produktuen, irudien eta dokumentuen kopuru mugagabea argitaratu ahal izango du, eta erakusleio digital erakargarria eraiki.
 - Epe luzeko erakusketa: Produktuen sarbideak aktibo egongo dira beti ekitaldiaren hurrengo ediziora arte. Berrikuntzen galerian inklusio berriak eguneratu eta/edo eska daitezke.
 - ikusgarritasuna: Zure enpresaren eta produktuen argazkiak, testuak eta bideoak txerta ditzakezu. Horrek bilaketak produktuen kategorien arabera dinamizatzeko aukera ematen du. Eta nabarmen areagotzen da ikusgarritasuna bisitarien artean.
 - Ekitaldia amaitu ondoren, direktorioa gogorarazteko bidalketak egingo dira bisitari nazionalen eta nazioarteko datu-basearen bidez.
- **Eragileen bilaketa.**
 - Eragileen eta/edo ordezkarien bilaketa argitara daiteke direktorioan. Sektoreko profesionalekin harremanetan jartzeko aukera ona da.
- **Zure albisteak webgunean.**
 - Zure enpresaren berriak bidal diezazkigukezu pumpsandvalves@bec.eu helbidera eta webgunean argitaratuko ditugu (atala: albisteak).
- **Media Press Kit.**
 - Ekitaldian zehar beren "Press Kita" bidaltzen duten erakusketarien kasuan, BECek "Press Kita" bidaliko die komunikabideei haiek aukeratutako edukiarekin: prentsa-oharrak, argazkiak, produktuen dossierak, berrikuntzak...

PREMIUM PACKA:

Pack Basic-eko tresna guztiak ditu, baita hauek ere:

• **Webgunean ikusgarritasun goren.**

- Logoa: Enpresaren logoa webgunearen hasieran agertuko da "Erakusketari nabarmena" gisa.
- Produktua: Zuk aukeratutako produktuaren argazkia erakusketarien direktorioaren scrollerrean agertuko da.

• **Azoka aurreko e-mailak.**

- Zure enpresaren logoa "Erakusketari nabarmena" gisa agertuko da bisitari nazionalen eta nazioarteko en datu-basera bidaliko den lehenengo emailean. Parte hartzeko eskaera jaso den datari lotuta.

• **Erregistratutako bisitarien zerrenda.**

- Ekitaldian sustatzeko erregistratu diren bisitarien zerrenda (izen sozialak) bidaliko dizugu e-link bidez, aurretik visipumpsandvalves@bec.eu helbidean eskatuko dute.

• **Zure webgunerako esteka** agertuko da ekitaldiko webgunearen erakusketarien zerrendan.

• **Zure logoa** bisitariak erabiltzen duten direktorioaren goiburuan agertuko da.

• **Prentsaurrekoa.** BECek prentsaurrekoa prestatzen lagunduko dizu, komunikabideen aurrean presentzia handiagoa izateko. Parte hartzeko eskaera jaso den datari lotuta dago zerbitzu hori.

• **VIP gela.** Zure enpresarentzat VIP gelarako doako sarrera bat izango duzu.

6. DERRIGORREZKO ASEGUURAK

BECek ekitaldi honetarako kontratatutako dituen aseguruak **parte hartzeko prezioaren barruan daude** sartuta, eta BECen Parte Hartzeko Araudi Orokorraren 33. artikulua araberako, oinarritzko ezaugarri hauek izango ditu:

Kalteen aseguru

- Oinarritzko estaldura: Erakusketan eta standetan dauden ondasunak erre eta lapurtzea, azoka-eremuan egindako zamalanak barne. Halaber, bilgarriak ere barne hartuko ditu, 10.000 €ko lehen arriskuko mugarekin eta 1.000 €ko frankiziarekin ezbehar bakoitzeko.
- Aseguratutako merkantzia: Merkataritzako merkantziak, oro har, barne hartzen ditu baita ere lapurtutako (ebasketa ez) elementu informatikoak eta etxe-tresnak (ildo marroia), ezbehar bakoitzeko 300 €ko frankiziarekin. Salbuespen hauek egongo dira: merkantzia korrosiboak, sukoiak, leherkorrak, pozoitsuak erradioaktiboak, animalia bizidunak eta landareak, eskudirua, efektu komertzialak edo bankukoak, higiezin balioa duten tituluak eta kupoiak, edergarriak eta bitxiak, artea eta antigoeleko objektuak, aurreordainketako txartelak, makinak edo muntaketa eta desmuntaketa lanetarako bestelako ondasunak.
- Aseguratutako kapitala: Aseguratutako kapitala onarpen-eskaeran bertan aitortu beharko du erakusketariak. Hala ere, derrigorrezko gutxienerako kapitala dago, 12.000 eurokoa. Erakusketariak kapitala aitortzen ez badu, antolakuntzak finkatutako gutxienerako kontratatutako dio, eta BEC aseguratutako gehiegizko eta/edo okerreko kapitalaren erantzukizun guztietatik salbuetsita egongo da.
- Hobaria: Erakusketariak emandako balioaren gainean, edo berak eman badu izena, derrigorrezko gutxienerako kapitalaren gainean % 8,6 ko tasa (milako). Gutxienerako prima: 103,2 €.
- Frankizia: Zenbatekoa poliza kontratatzerako unean aseguruaren merkaturatu eskuragarri dauden baldintzen arabera izango da.

Erantzukizun zibileko aseguru

- Oinarritzko estaldura: Ekitaldiaren ondorioz hirugarrenei eragindako kalte materialak eta korporalak; berariaz, alde batera uzten da erakusmahaiak langileen (erakusketariaren mendeko langileak eta/edo hark azpikontratutako langileak) lan-istripuen ondoriozko erantzukizun zibila.
- Kalte-ordainen muga: 1.200.000 € ezbehar bakoitzeko eta ekitaldian gertatutako ezbeharren multzorako; biktima bakoitzeko 600.000 €-ko muga, kalte pertsonalen kasuan.
- Hobaria: 110,00 € erakusketari bakoitzeko.

Estalduraren epea 2023ko ekainaren 1tik 11ra izango da.

Izenpetutako polizen estalduren, mugen eta salbuespenen xehetasun zehatza egiaztatzeko, erakusketariak eskuragarri izango dituzte Ekitaldiaren Zuzendaritzako bulegoetan kontratatutako aseguruen polizak.

7. BALDINTZA EKONOMIKOAK ETA ORDAINKETARI DAGOZKIONAK

Parte hartzeko eskaerarekin batera, erakusketariak 60€ + BEZa / m²ko ordaindu beharko du aurretik , eta parte hartzeko zenbateko osoari kenduko zaito gero. Zenbateko hori itzuli egingo da etorkizuneko erakusketariak erakusketarako baimenik jasotzen ez badu.

Ordaindu beharreko zenbatekoaren epemuga 2023ko martxoaren 15a izango da.

2023ko martxoaren 15aren ondoren jasotako izen-emateak erakusketariari bere kokalekua jakinarazi ondoren fakturako dira eta ordainketa berehala egin beharko da banku-transferentzia bidez.

Ordainketak transferentzia edo helbideratze bidez egingo dira, parte hartzeko eskaeran hala adieraziz gero. Banku-helbideratzea eskatzeko azken eguna: 2023ko martxoak 15.

Parte-hartzea ezeztatzea: Parte hartu ezean, erakusketariak idatziz jakinarazi behar du pumpsandvalves@bec.eu helbidean, eta ordaindutako zenbateko osoa galduko du.

8. MUNTATZEA, MERKANTZIAK SARTZEA ETA DESMUNTATZEA

Stanean muntaketa eta merkantziak sartzea.

2023ko ekainaren 1ean hasiko da, **08:00etan**, eta **2023ko ekainaren 5eko 15:00etarako** amaituta egon beharko da.

Standen desmuntaketa eta erakusketako materiala ateratzea.

2023ko ekainaren 9an hasiko da, **08:00etan**, eta **2023ko ekainaren 11ko 20:00etarako** amaituta egon beharko du.

Ekitaldia amaitzean, hasierako baldintza berberetan geratu behar du espazioak. Zoruan eta hormetan edozein alterazio izanez gero, epe horretan bertan konpondu beharko da.

9. HARREMANETARAKO DATUAK

Komertziala:

- ☎ (34) 94 40 40 051
- ☎ (34) 94 40 40 079
- ☎ (34) 94 40 40 107
- ✉ pumpsandvalves@bec.eu

Zerbitzu Teknikoak:

- ☎ (34) 94 40 40 000 (luz. 3)
- ✉ serviciospumpsandvalves@bec.eu

Administrazioa:

- ☎ (34) 94 40 40 123
- ✉ administracion@bec.eu

Bisitariak:

- ☎ (34) 94 40 40 000 (luz. 2)
- ✉ visipumpsandvalves@bec.eu

Akreditazioak:

-
- ✉ acreditaciones@bec.eu